# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

## 972

*EBAZPENA, 2019ko otsailaren 8koa, Hezkuntzako sailburuordearena. Honen bidez, 2018-2019 ikasturtean diru-laguntzak ematen zaizkie zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako eskolen titular diren tokiko korporazioei.*

2018ko abenduaren 17ko EHAAn, Hezkuntzako sailburuaren 2018ko azaroaren 20ko Agindua argitaratu zen, 0 eta 3 urte bitarteko umeak atenditzen dituzten udal eskolentzako 2018-2019 ikasturterako diru-laguntzak eskuratzeko baldintzak arautzen dituena.

Aipatu aginduaren 11.1 artikuluarekin bat etorriaz, Hezkuntzako sailburuak hartutako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradunei jakinarazpen banan-banan egingo ez zaienik. Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Hezkuntzako sailburuaren 2018ko azaroaren 20ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta haien onuradunak. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 8a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN MAITE ALONSO ARANA.

ERANSKINA

| Udala | 1. ordainketa | 2. ordainketa | Guztira |
|---|---|---|---|
| Gaubea | 6.402,69 | 14.939,60 | 21.342,29 |
| Vitoria-Gasteiz | 292.830,70 | 683.271,63 | 976.102,33 |
| Araba | 299.233,39 | 698.211,23 | 997.444,62 |
| Barakaldo | 76.790,55 | 179.177,95 | 255.968,50 |
| Portugalete | 62.525,56 | 145.892,98 | 208.418,54 |
| Bizkaia | 139.316,11 | 325.070,93 | 464.387,04 |
| Andoain | 40.821,63 | 95.250,47 | 136.072,10 |
| Aretxabaleta | 68.356,20 | 159.497,79 | 227.853,99 |
| Arrasate/Mondragón | 125.297,69 | 292.361,27 | 417.658,96 |
| Eskoriatza | 30.830,68 | 71.938,26 | 102.768,94 |
| Irun | 56.534,91 | 131.914,78 | 188.449,69 |
| Oiartzun | 118.538,35 | 276.589,47 | 395.127,82 |
| Ordizia | 80.377,33 | 187.547,09 | 267.924,42 |
| Pasaia | 28.973,08 | 67.603,85 | 96.576,93 |
| Usurbil | 61.720,65 | 144.014,84 | 205.735,49 |
| Gipuzkoa | 611.450,52 | 1.426.717,82 | 2.038.168,34 |
| EAE | 1.050.000,02 | 2.449.999,98 | 3.500.000,00 |